

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko abenduaren 22a

*

Emakumeak, nafarrak eta enpresariak

2.658 emakumezko enpresari eta zuzendari dago gure herrialdean Nafarroako Enpresa Emakume eta Zuzendarien Elkarteak (AMEDNA) egin ikerketak plazaratu duenez. Errolda egiteaz gain, emakumeon arazoak, ekimenak eta iritziak ere jaso ditu aipatu ikerketak. Hauei guztiei buruz, Blanca Fernandez GITEko kidearekin, Clotilde Garcia Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendariarekin eta Teresa Arraras AMEDNAko lehendakariarekin mintzatu gara, Nafarroako emakumeon errealitatea hobeto ezagutzeko asmoz.



Dendak eta botikak dira, batez ere, emakume nafarrek eratzen dituzten enpresak

OSKAR MONTERO

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Gazteluko sala beltzean sorgin gaiztoak behatza luzatu zuen cupidarik gabe: «Sartazue gartzelara eta paga dezala isuna!». Nola utzi zigortu gabe emakume haren lotsagabekeria! Demokrazi antolamendu hartan ez zuela sinesen, eta ez zuela hartarako hauteskundeetan lagunduko! Ezin horrelakorik onartu! Orduan, akusatua, Edurne Zuri, zutitu eta, bere ipotx lagunak ondoan zituela, ahoa ideki eta Korrokl erran zuen, eta bere printze urdinaren bila abiatu zen, harekin batera bere ametsetako lurraldea eraikitzen.

Lankratx eta biak gaztelu-epaitegitik atera eta lauhazka joan ginen ikustera Durangoko Azoka, ahoa bete euskaraz, ez «erdarari erasoka» hango elizako arkupeetan koplariak erran zigun bezala. Izanez ere Rey batekin egon beharrak ginen han, eta hari Galdeka lortu genuen inguruko lagunek *Agua turbia* ematea, paraje hauetan egarri direnentzat, oraindik ere behar ainako euririk ez baitigu egin. Baina, azkenean, Alonso ez Quijano baina bai Kixote batek *Korrokl* eginez diosai eta *Katebegi galdua* ekarri zigun

eskura, hain zuzen ere gure armari nafarra osatzeko falta genuen huraxe omen dena.

Handik goizean goiz abiatu eta iluntzean elurrak Aralar aldeko benta batean geldiarazi gintuen. Primeran afaldu genuen. Etxekoandreak bazekien odolki egiten. Neskatxa ederra zeukaten serbitzari eta joan-etorri guzietan keinu eta irrimurizka aritu ginen. Pausoa aitzinera ematera atrebitu ginenerako ordea botila bana hustua genuen. Saiatu ginela, alegia, baina zakar, eta hark guri *Korrokl*. Bana hartatik ere. Arrazoi izan behar du Bajo Ulloak, hemen mozkortu arte ez gara gauza,...eta gero gerokoak. Martxa kaxkarra, gurea.

Biharamunean, Iruñera ailegatzean zaldia farola batean lotu eta modako zinetokira sartu ginen. Euskal Zinema berria ikusi behar omen genuen. Ikusi beharrekoa. Diren dimentsio guzietan eta efektu bereziekin egina. Eta egia erran, liluragarria! Tiroak eta lehergailuak barra-barra. Haiek zoomak! Balaren sartu-ateratze gardena, mantso-mantso ema-

na! Larruazal errearen usaina! O, gorputz hautsiak! Eta odolaren gorria...! Utikan Tarantino, Alex de la Iglesia edo nahi duzuen. Paregabea! Etengabeko *klimaxa*! Eta azkeneko eszena,...nola hangoek (?) hemengoek (?) kontrako mendeku gisa ikastola bat errausten duten! Eta ateratzean ikusleak berak ere elkar joka! Mundiala! Lankratxek eta biek *Korrokl* egin genuen, jakina, baina goitika atera zitzaigun bezperako afari ederra. Lastima!

Kanpoan jende erreldu luzeak ikusi genituen loteria-etxeetan, begiak zerura, Jainkoari erreguka. Bill Santa Claus agertu zitzairen, Aladino-Disneyren alfonbra batean hegaka,...ez ordea dolarrak partitzen, zianuroz oratu eta kokakola botilen barrenean sartutako papeletan bake-mezuak dispartzen baizik. «Ez da esku hutsik etorri, halere» kontsolatu ziren. Guri ere bihotza samurtu egin zitzaigun, eta sakeletatik ipurtargiak aterata ilunpetan etsaiak bilatzera jo genuen, urtearen azkeneko puztarkak bederen haiekin adixkide emateko (zer gerta ere, guk ere zeru puxkaren bat nahi...). X

Edurne zurik korrokl egin zuen

ERAKUSKETAK

Tafalla: Lagar aretoan argazki zaharren erakusketa zabalik dago, urtarrilaren 7a bitartean.

Iruñea: Nafarroako Museoa Santiago Calatravaren ingeniari-tza eta arkitektura proiektuak ikusteko parada dago. Erakusketa urtarrilaren 7a bitartean egonen da irekita, asteartetik larunbatera 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara, eta igandeetan 11.00etatik 14.00etara. Astelehenean museoa itxia dago.

KONTZERTUAK

Iruñea: Kashbad, Tapia eta Leturia Band eta Ttakun taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, arratsaldeko 8.00etan, Errotxa-peako gaztetxean.

Gares: Gipuzkoako Sorotan Bele taldeak bihar Fundamental aretoan joko du.

Iruñea: Pablo Sarasate orkestrak Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fondoarentzat (Unicef) urteroko kontzertua eskainiko du. Gaiarre antzokian, gaur 20.00etan.

Barañain: Liguori abesbatzak Eguberrietako kontzertua eskainiko du Santa Maria elizan, gaur, arratsaldeko 8.15etan.

ZINEMA

Iruñea: Nafarroako Museoa, haurrei eskainitako zinema zikloaren barruan, *Exploradores* filmea eskainiko da gaur goizeko 11.30etan, eta sarrera dohainik izanen da.

Zangoza: Labriteko Enrike printzearen zinema aretoan, *Una foca en mi casa* filmea eskainiko da abenduaren 27an, asteazkena. Sarrera 250 pezetakoa izanen da. Toki eta ordu berean baina hilaren 28an, *Power Rangers* pelikula emango da.

ANTZERKIA

Leitza: Leitzaiko kultur taldeak antolatua, Bederen 1 taldeak *Zu(t)gabe* lana antzeztuko du bihar, arratsaldeko 8.00etan, zinema.

Zizur Nagusia: Haurrentzako *Kilitiko* antzerki saioa eskainiko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak hilaren 27an, asteazkena. Emanaldia 17.00etan izango da Kultur Etxean eta sarrera 100 pezeta kostako da.

BESTELAKOAK

Iruñea: Txantrea auzoko erabilpen anitzeko aretoan diapositiba emanaldia izanen da heldu den asteazkenean, abenduak 27. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan eginen da eta Pekindik Hong-Kong-era bizikletaz joan den udan sei lagunek egindako bidaia kontatzen da.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Kontuak kontu...

Alesbesko udalean iaz eginiko kontratazioen artean irregulartasun franko aurkitu ditu Kontuen Ganbarak. Halaber, BEZari buruzko araudian eta langileen arloan ere anomalia ugari antzeman ditu, udal txostenean ez baita aipatzen zer arau jarraitu diren gauzak egiteko. Irregulartasunak industrialdearen eraikuntzan daude bereziki. Adibidez, obraren ajudikatzaileak aurkeztutako agiriaren eta udal agiritan zehaztutako gastuen artean alde handi samarra dago. Zehatz esanda, 41 milioi pezeta. Ganbararen txostenan aipatzen da udalaren dokumentazioan idazkariak egin zuen oharra, kontratatzekeo agiria ilegalak izan zitekeelakoan. Gainera, legeak agintzen duen gutxienezko dokumentazioa ere ez duela aipatu du erakunde fiskalizatzaileak. Alesbesko udalak garrantzia kendu dio txostenari, udalak ondo jokatu duelakoan, nahiz eta onartzen duen formazko anomalia batzuk daudela.

Alesbeskoa udal txikia da, zailtasun ekonomiko handiak dituena, eta hala-beharrez gauzak atera nahi izango dituena. Arauekin *toreatu* beharko duena, alegia. Beste hainbeste bezala. Deigarriena da Kontuen Ganbarak hainbeste lan hartzea herriz herriko kontrol honetan. Aztertutakoaren arabera, irregular-

tasunak eguneroko ogia dira, eta fiskalari hainbat txosten igorrita ere inoiz ez dira kontuan hartu. Alesbeskoa bereziki larria iruditu zaie Kontuen Ganbarakoei, eta halaxe azaldu dute txostenean.

Ematen du, alabaina, horretan gelditzen direla txosten hauek guztiak, egunkarietan orriren batean azalduta edota alkateren baten justifikazioa besterik ez dutela eragiten. Inork ez duela oso kontuan hartzen erakunde dioena. Hain segur, udalei berei ez zaiela gehiegi interesatzen, akaso erakunde gehienei min egiten dielako?



asteko pertsonaiak



Miguel Indurain
Txirrindularia

■ Miguel Indurain, Banesto taldeko txirrindularia omenduko du Tourrak Nafarroan zehar igaroko diren bi etapekin. Zuberoa, Nafarroa eta Lapurdi uztailaren 17an eta 18an zeharkatuko dituzte aipatu bi etapak. Jean-Marie Leblanc, Tourreko zuzendariak bi etapak aurkezteko asteartean egindako ekitaldian esan zuen Indurainek Tourrari eman dionagatik eta Tourreko talde antolatzailearen esker ona erakusteko igaroko direla herrialdeetik bi etapak. Atarrabiakoaren irudikoz, Nafarroako hiriburutik igarotzen diren bi etapak gogorak izanen dira eta batez ere bertan amaitzen dena, «oso mugitua izanen delako». Hala ere ez du uste presio berezia izango duenik Iruñean amaitzeagatik.



Aingeru Epaltza
Idazle eta itzultzailea

■ Aingeru Epaltzaren *Ur uherrak* eleberraren euskarazko bertsioa kaleratu du Hiru argitaletxeak. Iruindarraren lana Bego Montoriok itzuli du *Agua turbia* izenburupean. Epaltza pozik dago itzulpenarekin, bere iduriko zehatza eta fidela delako eta ez lanaren bertsio bat. Nafarrak aitortu du bere buruari galdetu diola noizbait erdarazko itzulpena nolako izango zen, baina garbi omen zuen berak ezingo zuela bere eleberria itzuli. Itzulpena egiterakoan itzultzailearen eta egilearen arteko kolaborazioa estua izan dela erran du nafarrak eta euskal literaturaren erdarazko bertsioak egitearen alde agertu da. Era berean, Aingeru Epaltzaren iritziz, egun dagoen euskal literatura inoiz izan den oparoena da.

ahaztu gabe!



LEHIAKETA

Etxarri-Aranatz: urtero bezala, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Sakanako VII. Literatur Lehiaketa eta V. Komiki Lehiaketa antolatu du. Aurtengo lehiaketa abenduaren 11n zabaldu zen, eta heldu den urteko urtarrilaren 26an itxiko da lanak aurkezteko epea.

Literatur eta Komiki lehiaketek batez ere helburu pedagogikoa dute. Sariketaren bidez, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak nahi du eskualdeko haurrek komikietan ere euskara landu dezaten, eta euskaraz idaztera motibatua nahi ditu.

Lehiaketara aurkeztutako lanak ikasleak dauden mailaren arabera bereiziko dira, eta horren arabera hiru multzotan banatuak daude: OHoko 5. eta 6. mailakoak, DBHko 1. eta 2. mailakoak eta LH, BBB eta UBko ikasleak.

Lehiaketarekin batera *Sakanan irudimena lantzen* 1995 liburua argitaratuko da, eta ikasleei banatuko zaie. Liburuan iaz saritutako lanak argitaratuko dira, eta osotara 700 bat liburu banatuko dira.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaintik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Iruñea

Gabonetako Antzerkia

Erdarazko eta euskarazko emanaldiak asteartetik aurrera Yanguasko eszenatokian

Haur Antzerki emanaldi oparoa prestatu du Iruñeko Udalak Gabonetarako. Hilaren 26an, heldu den asteartean, hasiko dira emanaldiak, eta azkeneko hirurak —'Tras las caras', 'Bikingoak' eta 'Tatapa'— euskaraz izango dira. Antzelan guztiak Yanguas y Mirandako aparkalekuan paratuko den eszenatokian izango dira.

Erredakzioa / Iruñea

GASTEIZ ANTZERKIA, Kollins Clown eta Teatro Markeliñe taldeek eskainiko dituzte emanaldiak, baina programazioa asteartean hasiko da Roseland Musikal taldearen *Cara Calla* lanarekin. Antzelan honetan aurpegian dauden organoak —sudurra, ahoa, belarriak, begiak— dira protagonista, eta horien inguruan dago osatuta istorioa. Asteazkenean, hilak 27, Rudyard Kiplingen *Oihanaren liburua* lanean oinarritutako musikal bat izango da ikusgai, ostegunean Ananda Dansa taldearen *Noin-tendo* eta ostiralean, *Hansel eta Gretel* eskainiko dituzte. Lan honen lotura du operarekin, Carmen Bustamanteren opera taldeak harreman handia izan duelako 1986tik haur antzerkiarekin. Larunbatean La Pera Limo-



Gasteiz Antzerkiaren lanaz gain, mota guztietako antzeztelanak ikusi ahal izango dira.

I. OLALDE

nera taldeak *Rucs, el maleficio del brujo* izeneko lana taularatu du. Emankizun guztiak eguerdian izango dira.

Ez da izango hau Iruñeko Udalak egun hauetarako antolatutako duen ikuskizun bakarria, hilaren 12tik aurrera *Mila ahots... mila gabon kanta* izeneko zikloa iragarrita dagoelako. Asteburu honetan bi kontzertu entzun ahal izango dira: Irubide Abesbatzak Dominikarren elizan abestuko

du gaur 20.00etatik aurrera, eta Leidor Abesbatza bihar izango da Karmelitarren elizan, ordu erdi geroago. Heldu den ostiralean Redentoristarren elizan abestuko du Liguori Abesbatzak arratsaldeko 20.30etan.

Bestalde, Abesbatzen Federazioak kontzertu bat emango du datorren asteazkenean, hilak 27, San Antonio elizan, eta Katedraleko Musika Kapera Santa Eliza Katedralean egongo da ostegu-

nean. Heldu den ostiralean Egu-berriko pastorala izango da Barroja pabilioian, 20.00etatik aurrera, Iruñeko Orfeoiaekin eta orkestrarekin.

Ipuin kontalariak ere ez dira faltako eta Navarrerria Aretoan *Hamelingo txirularia*, *Katu botaduna*, edo *Makilaktxi* bezalako ipuinak entzun ahal izango dira 18.00etatik aurrera. Asteartetik larunbata bitartean izango dira ipuinak. X

Altsasu

Kima taldeak antolatutako I. Bertso-Paper Lehiaketako sariak banatu dira Gure Etxean

■ Mikel Agirre urdiaindarrak aipamen berezia jaso zuen 'Nafarroako pixontzia' bertso sortagatik

Alberto Barandiaran / Iruñea

KIMA taldeak antolatutako I. Bertso-Paper Lehiaketako sariak banatu ziren hilaren 1ean Altsasuko Gure Etxean. Helduen mailan Joxemari Izeta Mariartu usurbildarra nagusitu zen, *Neskatan* lanarekin, eta bigarrena Aitzol Astigarraga Pagoaga mutrikuarra izan zen, *Mesanotxeko bazter batian* bertso sortarekin. Gazte mailako bi sariak Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena beasaindarrarendako izan ziren *Urola tren* eta *Maitasun oroitzenak* lanei esker. Manu Gomez eta Joxemari Leitza bertsolariak eta Rafa Goñi Kimakideak osatzen zuten epaimahaiak aipamen berezia eman zion Mikel Agirre Goikoetxea urdiaindarrari, *Nafarroako pixontzia* izenpean Altsasun girotutako bertso sortagatik.

Saridunak, helduen mailan, 30.000 pezeta jaso zuen, eta 20.000 bigarrenak. Gazteetan 20.000 eta 15.000 pezetakoak

ziren sariak. Sariak eman aurretik Estitxu Arozena, Joxemari Leitza, Bittor Elizagoien eta Joxe Fermin Argiñarena aritu ziren bertsoan, eta ondoren afaria egin zen Altsasuko elkarte batean.

Lehen lehiaketa honen balantzea egitean, lanaren maila aipatu behar da, epaimahaiak oniritzi diote eta. Hala ere, lehiaketa iragarri zenetik bertsolariendako denbora gutxi izan zela aipatu du Javier Casteig Kima taldekoak. «Heldu den urtean epe luzeagoa utzi beharko dugu, jendeak ezin izan zuelako bertsoak propio prestatu». Horregatik lortu dute saria inguruarekin batera loturirik ez zuten Urolako trenaren inguruan egindako bertsoak. «Nahiko zaila litzateke Sanferminei buruz bertso batzuk saritzea Mutrikun, esate baterako».

Sarien eta antolakuntzaren ardurak Kima taldearena izan da, nahiz eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat eskuratu duten. X



Mikel Agirre, saria jasotzerakoan.

FELIPE ORKADA

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Zerbait gogorraren beharrean

LARUNBAT goiza zen, eta berriro ere zigorturik zegoen. Beraz, berriro ere ziegan isolaturik eman beharko zuen asteburua. Larunbat eguerdian itxiko zioten txabolako ateko krisketa, eta astelehen goizera arte janaria emateko besterik ez zioten irekiko.

Egia esateko, bete zituen estreinako isolamenduzko asteburuak ez zitzaizkion horren gogorrak iruditu. Garai hartan, denbora gehiena lokarturik igarotzen zuen, eta lo zerraldo ez zegoenean telebistari so geratzen zen. Konturaten zenerako jada astelehena zen. Denbora pasa ahal, alta, asteburuak sofronizaturik igarotzeaz aspertu zen. Orduak gero eta luzeagoak egiten zitzaizkion, eta, gauzak horrela, Morfeo eta pantaila txikiak landara bestelako denborapasak bilatu zituen.

Harizko eskumuturrak eta artilezko kometak egiten hasi zen. Bere eskulanekin lagun guzien eskumutur eta jertseak bete zituen, eta horren gibeletik ispiluetan marrazkiak egiteari ekin zion. Azken bolada honetan, baina, horretaz ere nazkatuta zegoen, eta gainera amaren arabera etxean ez zen ispilu gehiagorik sartzen.



Asteburu honetarako zerbait gogorragoaren beharrean zegoen. Lortuko ez balu ziegako lau paretak gainera eroriko zitzaizkion, literako koltxoi petralean hondoratuko zen, buruak eztanda egiten zion. Lehenik eta behin, konfiantzazko lagunengana jo zuen, baina horiek ez zeukatelara ezer ikusi zuenean, bistaz besterik ezagutzen ez zituenekin ere tratatuak egiten saiatu zen. Hamaika aldiz galdetu zuen «Ba al duzu zer edo zer?», eta beste horrenbeste aldiz erantzun zioten «Ez, motel, ez daukat deus». Desperaturik amore ematear zegoelarik, bizilagunak, alboko ziegan bizi zenak, «Lasai, txo, hemen duzu horrenbeste desiratzen duzuna» esan, eta aldizkari pornoa eman zion. X

Negozioak ere badira emakumeen kontu

Nafarroako emakumezko enpresari eta zuzendarien errolda egin eta euren egoera aztertu du Amednak

Nafarroan 2.658 enpresa emakume eta zuzendari daude, Nafarroako Enpresa Emakume eta Zuzendarien Elkarteak (Amedna) egin ikerketak plazaratu duenez. Teresa Arraras da Amednako lehendakaria eta ikerketa honetaz mintzatu gara berarekin. Clotilde Garcia Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendariarekin eta Blanca Fernandez IPE-Seko Emakumearen Departamentuko kidearekin ere emakumearen eta lan munduaren arteko harremana izan dugu mintzagai.

Edurne Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO Enpresa Emakume eta Zuzendarien Elkarteak (Amedna) gure herrialdean dauden enpresa emakume eta zuzendarien errolda eta euren egoerari buruzko datuak jasotzen dituen ikerketa kaleratu du. Horren arabera, 2.658 enpresa emakume eta zuzendari daude Nafarroan eta horietako gehienek zerbitzuen sektorean egiten dute lan.

Teresa Arraras enpresa emakumea da Amednako lehendakaria eta berarekin mintzatu gara aipatu ikerketari eta berak zuzentzen duen elkarteari buruz. Nafarroako ia hiru mila emakumeren lana aztertzen duen ikerketa honen ondorioak, halaber, Blanca Fernandez NUPko irakasle eta Gizarte Ikasketetarako Talde Eragileko (IPES) Emakumearen Departamentuko kidearekin eta Clotilde Garcia Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendariarekin eztabaidatu nahi izan ditugu, euren iritzia zen den jakiteko asmoz.

Teresa Arraras Amednako lehendakariak azaldu digunez, orain urtebete sortu zen Nafarroako Enpresa Emakume eta Zuzendarien Elkartearen eratzeko asmoa. Espainiako Estatuan eta baita Europan ere emakumeen artean elkarteak sortzeko mugimendu nabaria zegoela ikusirik, Nafarroan zegoen hutsunea betetzeko eratu zuten Amedna.

Orain arte elkarte honek egin duen lehen lana, hain zuzen, Nafarroan diren enpresa emakume eta zuzendarien errolda jaso eta euren egoera aztertzen duen aipatu ikerketa izan da. Elkartearen ibilbidearen abiapuntutzat jo dute ikerketa hau, «dagoena ikusirik, lanean hasteko».

Ikerketak plazaratu dituen datuei dagokionez, alde batetik positibotzat eta bestetik harri-garritzat jo ditu Teresa Arraras Amednako lehendakariak. «Egindako erroldak 2.658 enpre-



sa emakume eta zuzendarien izenak eskaini dizkigu. Hauetako gehienek, gainera, elkarte baten barruan egon nahi dute inkestak bidez jasotako datuen arabera, eta hau guretzat abiapuntu ona da», aipatu du Arrarasek.

Datu harrigarrien artean, Iruñea inguruan diren herrietan dagoen emakumezko enpresari kopuru handia aipatu du Amednako lehendakariak. «Elkatea ibiltaria izan daitekeela pentsarazten digu datu honek». Bestalde, oraindik ere emakumeek enpresa handietako goi karguetara iristeko dituzten zailtasunak nabarmenak direla aitortu du Teresa Arrarasek, «nahiz eta merkatari-tza alorreko postu nabarmenetan emakume asko dagoen». Halaber, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek etxe barrukoaren ardura oraindik ere badutela azpimarratu nahi izan du Amednako lehendakariak, eta, bere ustez, «ardura horrek goi karguek eskatzen dituzten zereginak egiteko askatasuna kentzen die emakumei; ez, aldiz, gizonezkoei. Hezkuntza arazoa da, finean».

Emakumeek osatutako elkarte bada ere, ez da feminista Amednari dagokion hitza, bere lehendakariak azaldu duenez:

Teresa Arraras: «Etxeko lanen ardura izateak goi karguek eskatzen duten askatasuna kentzen dio emakumeari»

«Benetako berdintasuna lortu nahi badugu, borrokatu behar dugu, baina ez dut uste emakumeok gaizki tratatzen gaituztelako kezaka denbora galdu behar dugunik. Lanean frogatu behar dugu gure gaitasuna».

Emakumearen berezko baloreen aldarrikapena • Blanca Fernandez IPE-Seko Emakumearen Departamentuko kideak ongi eza gutzen du emakumeak gure herrialdean bizi duen egoera eta, beste hainbat alorrez gain, lan munduarena ere izan du aztergai.

Emakumearen liburutegiaz eta dokumentazio zerbitzuaz gain, informazio eta heziketa ikastaroak eta ikerketa ere badira IPE-Sek emakumearen alorrean egiten dituen lanetako batzuk. Ikerketari dagokionez, 1975etik 1991ra bitarteko epea oinarritzat hartuz, emakume nafarren egoera sozialari buruz egindako lana da emakumearen alor honetan egin duten azkenetakoa.

Lan honetan jasotako datuen arabera, emakumea pixkanaka lan munduan sartzen hasi zen urte hauetan. Emakumearen aktibitate tasa, beraz, aldatu egin da denborak aurrera egin ahala. % 18,7koa zen 1975ean eta

behar dira. Emakumeak berezkoak dituen baloreak aldarrikatu beharko lituzkete, finean, emakumeok, nire ustez».

Berdintasunaren aldeko

Europako plana • Clotilde Garcia Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendaria Amednako kideekin batera agertu zen joan den azaroaren 22an, jendaurrean elkarteak egindako ikerketa ezagutzera eman zue-nean. Orduan, jada, «emakumeak bere ahalmenaz jabetu beharra» duela azpimarratu zuen, «inposaturiko rolak baztertzeko garaia baita, zuzendaritza lanpostutan gero eta emakume gehiago izateko».

Orduan bezala, enpresarien sentsibilizazioa beharrezkotzat jo du Clotilde Garcia gurekin hitz egin duenean, eta «emakumezkoek ekar ditzaketen baloreak kontuan hartu behar» dituztela nabarmendu nahi izan du, «gizonezkoen bezain garrantzitsuak baitira, finean».

Amednak bere ikerketan jasotako datuak oso baliagarritzat jo ditu Clotilde Garcia, bestalde. Nafarroan 2.658 enpresa emakume eta zuzendari daudela jakiteak, adibidez, garrantzi handia du bere ustez. Dena den, gaur egun oraindik ere aurrerapausoak eta atzerapausoak gertatzen direla azpimarratu nahi izan

Blanca Fernandez: «Lanordu gehien sartzen duena emakumea da baina hori ez da jasotzen duen soldatan islatzen»

% 34,8koa 1991n. Hala ere, gizonezkoen tasarekin (% 68) konparatuz gero, atzetik dago emakumea oraindik ere.

Amednak kaleratutako ikerketari dagokionez, bertan agertutako datu esanguratsuenek buruz mintzatu gara Blanca Fernandezekin ere. Emakume gehienek aipatzen zuten lan jardun bikoitza, adibidez, arazo nagusitzat aipatu du IPE-Sekoak ere. «Lan ordu gehien sartzen duena emakumea da, baina hori ez da jasotzen duen soldatan islatzen. Esplotazio hutsa da». Hori dela eta, euren enpresa propioa martxan jartzea erabaki duten emakumeen ekimena positibotzat jo du Blanca Fernandezek, «irteera polita izan daiteke-eta. Gainera, IPE-Sen egindako ikerketak jasotzen duenez, sektore publikoaren beherakada izaten bada datozen urteetan, aukera bakarra izan daiteke langabezia dela-eta».

NUPEko irakasleak, hala ere, emakumeek egun enpresa kontzeptuari dagokion mamia aldatu eta hobetu behar dutela uste du, «ikusuntu ezberdina eskaini behar du enpresa emakumeak eta ez gizonezkoen jokaera errepikatu. Giza printzipioak gailendu

du, besteak beste, Nafarroako Entzutegiko fiskalburu den Jose Maria Felezen memoriak piztutako polemika gogoratu. «Zoritxarrez, gizarteak maila ezberdinez osatuta daude, eta gure herrialde honetan badira oraindik aldaketaren eta emakumearen garapenaren aurka dauden hainbat arlo».

Nafarroako Emakumearen Institutuak berdintasunerako bide honetan duen erantzukizun eta betebeharez ere mintzatu zitzaigun Clotilde Garcia bere zuzendaria eta, zahazki, Europako Batasunak aurki abian jarriko duen Emakumearen Berdintasunerako Planaren berri eman zigun: «Berdintasuna lortzeko martxan jarri behar diren ekimenak biltzen dituen plana da Europako Batasunarena. Nafarroako Emakumearen Institutuaren asmoa, hain zuzen, legeingizaldi honetan plan hau onartu eta abian jartzea da. Hortik aurrera, Nafarroako Administrazioako beste alorreko arduradunekin elkarrekin egingo genuke lan. Horien artean, berdintasunerako bidean garrantzi berezia duten alorrek lehentasuna izango lukete, osasunak, hezkuntzak eta lanak, adibidez». ✕

Nafarroako emakumeak
enpresa munduan

2.658 emakumezko enpresari eta zuzendari daude Nafarroan

Iruñean eta zerbitzuetan egiten dute lan horietako gehienek

Emakume enpresariak batez ere zerbitzuetan alorrean egiten dute lan.

Eduñe Elizondo / Iruñea

AMEDNA-K Nafarroako Gobernuko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Emakumearen Institutuaren laguntzaz egin duen ikerketak jasotako datuen arabera, Nafarroan diren 2.658 emakumezko enpresari eta zuzendarien % 47k Iruñean egiten dute lan eta gainontzekoek, herrialdeko 172 herritan.

Nafarroako emakumezko enpresari eta zuzendari gehienak, bestalde, hirugarren sektorean, zerbitzuetan alegia, aritzen dira -% 88,5-, denda, ostatu eta botiketan, besteak beste. Bigarren sektorean, berriz, % 10,8k egiten dute lan eta lehenengoan, % 0,7k baino ez. Zuzendarien aldean (% 15) enpresa emakumeak nagusi direla (% 85) aipatu beharra dago.


Emakumeek Nafarroan sortzen dituzten enpresak txikiak eta egitura sinplekoak izaten direla erran daiteke, halaber. Zuzendariak dagokionez, ia emakumerik ez dago enpresa handietako goi karguetan. Enpresa txiki eta ertainetan, ordea, gehiago daude eta batik batik merkataritza eta esportazio sailetan dihardute. Baina emakumezko enpresari nafarraren ezaugarriak azaltzekotan, 26 eta 45 urte bitartekoa, seme-alabarik gabekoa edo gehienez bat duena, lehen mailako ikasketak dituen eta bere lana zerbitzuetan alorrean egiten duen emakumea dela erran daiteke.

Familiak eta gizarteak ezarritako baldintzapean • Enpresari munduan lan egin eta bizi diren emakume nafarren egoera zein den jakiteko asmoz, hainbat inkesta egin dituzte enpresa emakume eta zuzendarien artean. Inkesta horien bidez, emakume horiek hainbat gairi buruz duten iritzi eta ikuspegia ezagutu ahal izan dugu. Emakumeek erantzukizun karguak izan eta euren enpresa propioak zuzentzeari zer deritzote Nafarroako enpresa emakume eta zuzendariok?

Oro har, oso positibotzat jo daiteke emakumeon jarrera gai honi dagokionez. Eta hainbat argudio planteatzen dituzte: emakumea gizona bezain gai dela edozer egiteko, independentzia ekonomikoari eusteko bide bat dela eta langabeziaren aurrean alternatiba bat, besteak beste.

Nafarroako emakumezko enpresari eta zuzendari askok (% 30), hala ere, familiak eta gizarteak ezarritako baldintzapean egin behar dutela lan aitortu dute. Familiari dagokionez, bai kanpoan bai etxean lan egin beharra aipatu dute arazo nagusitzat. Bestalde, emakume izateagatik egiten duten lanak oraindik ere sinesgarritasunik ez duela azaldu dute askok. X

EGUBERRIKO ZOZKETA BEREZIA



1.000 EGUBERRIKO SASKI

Abenduaren 19an, 1.000 eguberriko sorten zozketa ospatu zen, Iruñeko kutxan helbideratutako sari eta zarsarien artean. Sariztatuekin harremanetan sartuko gara pertsonalki beren oparia emateko.

Zure sari edo zarsariaz ustekabenez ustekabe joango zara kutxan

IRUÑEKO KUTXA
Iruñeko Udal Aurrezki Kutxa

Xanti Begiristain

Txiskola / Joaten da eta esaten dio...

■ Gaur Txiskola programari buruz esan nahi dut zenbait gauza. Batzuk, jakina, goratzekoak izango dira eta besteak, aldiz, ipurdiko txikiak.

Hasteko adieraziko dut, Txiskola programa atsegina, arina, entretenigarria eta osasungarria iruditzen zaidala. Badakizue, esaten dute barre egitea oso ona dela osasunerako.

Jarraitu baino lehenago aitortu behar dut ia-ia ez dudala inoiz osorik ikusi, baina ez gogokoa ez izateagatik baizik eta beste arrazoi batzuegatik. Dena den, eta era berean, aitortu nahi dut atseginen dudan zatia «Nola esaten da japonieraz...» eta antzeko esketxak agertzen direna dela.

Baina jakina, denak ez dira goraipamenak izango, eta gainera hasieran argi eta garbi utzi dut puntu hori. Gaizki gogoratzen ez badut, uste dut, programa emititzen hasi baino lehenago (eta gero ere bai) esaten zela txiste-eskola izan litekeela, besteak beste, Txiskola-ren esanahietariko bat. Horregatik iruditzen zait, oraindik arrazoi gehiago dagoela kritika eraikigarriak egin ahal izateko. Hona hemen, ba, horietako batzuk:

Lehendabizi, niri iruditzen zait hainbat txiste eta pasadizotan, batzuetan,

erdarakada gehiegi entzuten dela, eta horixe bera lankideren batek noiz edo noiz ere komentatu izan dit. Badakit hori ez dela telebista eta arduradunen errua, bai; hori kontatzaileei dagokie. Nork bere hizkuntza maila hobetu eta jaso beharko luke.

Eta bigarrenik, kontatzaile askori, gero eta gehiagori, honako esamolde hauek entzuten zaizkie, alegia, «Etortzen da eta...», «joaten da eta...», «biltzen da eta...», «esaten dio...», «galdetzen dio...», «erantzuten dio...» eta abar, eta abar. Batez ere gazteei, euskaldun berriei eta haurrei entzuten zaizkie horrelako esakerak: gogora ditzagun pixka batez ETB1ek orain dela hilabete batzuk haurrekin egindako txiste-saioak. Beno ba, kontua da, nire ustez, esamolde eta kontaera horiek ez direla oso egokiak euskaraz txisteak eta pasadizoak esateko, edo ez behintzat egokienak, ondorean jarriko ditut adibide batzuk gogoeta gisa. Deus baino lehenago, oso garbi utzi nahi dut ni ez naizela batera aditua gai honetan, ez eta

sentitu ere, baina esate baterako, gure aitari beti entzun izan diot pasadizoak eta gertaerak honela kontatzen: «Joan da...», «esan dio...», «etorri da...», «galdetu dio...» eta abar. Kontu egin, aita jaio ondoren laurogei aldiz erori direla zuhaitzetako hostoak dagoeneko, eta txikitari euskaraz baino ez zekiela. Baina, gauzak horrela, modu batez eta besteaz hainbestetan entzunda, pertsonari azkenean zalantza sortzen zaio eta ez daki zein dagoen ongi eta zein gaizki, edota biak ongi dauden. Nire susmoa zen, eta da, bigarren esamoldea dela egokiago. Behin batean Iñaki Gaminderekin ko-



mentatu nuen afera hau, eta bere iritzia bat zetorren nirearekin; berak heldu eta zaharrei egindako hainbat eta hainbat grabaketak bigarren esakera horiek berresten omen ditu. Txiskolan bertan, saia zaitezte erreparatzen nola kontatzen dituzten zaharrenek eta gazteenek; kasu gehienetan aldea nabari samarra izan ohi da. Beste alde batetik ere, euskara arloan nahikoa trebe den beste jende askotxok eman izan dit iritzi bera. Hortaz, uste dut arrazoi franko dagoela pentsatzeko modu burutuan kontatzea egokiago eta fidagarriago dela gure euskal hizkuntzan.

Bukatzeko eta hausnarketa moduan esango nuke, euskara dagoen egoeran egonik, behar bada ez da nahikoa izango irakaskuntza eta helduen euskalduntzean txiste eta pasadizo on, bikain, barregarri, bizi eta graziadunak kontatzen irakastea soilik eta besterik gabe. Apika, euskararen molde jatorrak irakastea eta sendotzea ere ezinbestekoa liteke *lingua navarrorum*-a gehiago deskafaina ez dadin. ■

Klasiko bitxi, arrotz klasiko

Joxemiel Bidador

Belatarren erakaspak (II)

■ Belatarren artean ospetsuena Jean Philippe ote dugu, Jakesen birbiloba zena hain zuzen. Maulen sortua 1709. urtean. Gazte gaztetik Frantziako gudalostean sartu zen Grenoblen, eta kadetea zela, espetxeratua izan zen bere kapitaina zena duelun hiltzeagatik. Kartzeletik ihes egin ostean, fraile sartu zen, baina komentuko bizitzak abondo ez aseturik, Sajoniako Augusto III.aren armadan eman zuen bere izena. Dragoinen osteetan Poloniako burujabetasunaren alde borroka egin zuen Dantzing aldean. Artzainez mozarroturik Poloniako Estanislao erregea salbatzea erdietsi zuen nonbait, eta hark esker onez. Metz hiriko dragoinen teniente koronel izendatu zuen saritzat. 1745.ean Frantziako Luis XV.ak euskaldunetz osaturiko batalloi sortzeko eskaera luzatu zion, eta horrela *Cantabres Volontaires* izeneko talde armatua sortu zuen 1.046 gizonekin, mendi gatazketarako batik bat berezia zena. Talde honen bandera urdina zen. San Andresen zilarrezko gurutzarekin eta Nafarroako erresumaren armarrria erdi erdian zuela. Bolondresen koronela izan ostean 1749.ean utzi egin zuen, bizitakoak oinarri *Exercices et évolutions à l'usage du régiment Royal Cantabres* izeneko lana lehendabizi utziz. Urte horretatik aitzina, idazteari lotuko zitzaion bereziki.

Bere lan gehienak argitaratu gabe geratu ziren, esaterako *Mémoire aux états sur les services rendus au pays de Soule par le maison de Bela* edo *Mémoires militaires du chevalier de Bela*. Oroitzapen hauetako zenbait gauza Agosti Chahok agertu zuen bere *L'Ariel* aldizkarian 1846.ean, eta baita ere Ducéreren eskutik 1896an. Ondu idazkirik ospetsuena Pariseko Bibliothèque Nationalean N.A.F. 22.06 signaturaz gordetzen den *Histoire des basques depuis leurs origines jusqu'à 1748* izenburuko eskuizkribua dugu. Euskal Herri guzietako historia hau euskalki ezberdinetako hiztegi batek ahotzen du, grekera, latina, hebraiera, gaeliko, bretona, arabiera, gotiko, alemana, espainola eta italiarazko ordainekin. Txomin Peillen aburuz Jean Philippe Jakesek utzi zituen idazkiez baliatu zen bereak osatzeko. Hontaz artikulua bat agertu zuen 1983.ean *Fontes Linguae Vasconum* nafar gobernuaren aldizkarian. Horrelako lan erraldoiak hamaika zailtasun ediren zituen argitaratua izateko, eta Oloroeko Barthélemy Jean Baptista apezpikua izanen zen Dom Sanadon beneditarrari eman zion aterabide bila. Honek Belaren idazkia inausi zuen eta *Essai sur le noblesse des basques pour servir d'introduction à l'histoire générale de les peuples, rédigé sur les mémoires d'un militaire basque pau un ami de la nation* 254 orrialdetako izenburuko liburua agertarazi zuen Paben J.P. Vignancourenean 1785. urtean. Clément-Simonek ere eskuizkribuaren zatitxo bat agertu zuen bere *La société beamnaise au XVIII siècle* liburuan.

Nekazaritza nahiz ekonomiaz ziharduten beste zenbait lan euskaratu omen zituen, argitaratu ez zirenak, eta tamalez egun ezagunak ez direnak. Ekonomia mailan bederen, ezagun da oihalgintzan aritu zela, oihal lantegi bat sortu baitzuen. Beste maila batetan, medikuntza herriko eta sendabelarrei buruzko lan zabalak ondu zuen, *Receptes et secrets divers de la nature recueillis en faveur des pauvres, par les soins de Mr le Chr de Bela brigadier des armées du roy*. Eskuzkribu honek 1776. urteko data erakusten du, folio neurriko bost liburuki dira, osetara 547 orrialde direla. Bertan gaitzak eta eritasunak osatzeko erabideak eskaintzen dira. Egun, lan honen kopia bat Gasteizko Sancho el Sabio liburutegian da.

Bere bizitzaren azken urtetan, Zuberoko noblezian sartzea lortu zuen Hiruriko kontea lagun. Ohore honen jasale izateak bere kurrikuluma ilundu zuen nonbait, izan ere, 1770.ean hirugarren estadarren konparaketa erdietsi zuen konplotaren barruan baitzegoen. Lau urte beranduxeago, Zuberoko zenbait lurren erret eskubideak erosi zituen, Larrañe, Urdaize, edota Ospitalepiakoak besteak beste, eta haundikeri petralez harrotu zen edozein jauntxo hantustetsuk bezala jokatu. Halarik ere, 1789. urteko iraultzak etzuen behar baino gehiago aztoratu, eta ondasun erdiak bakarrik galduz, Zuberokoan lasai geratzeko aukera etzuen galdu. Azkenean, 1796.ean hil zen Paben. Jean Jaurgain zenak *Notice sur le chevalier de Bela* izenburuko artikulua utzi zigun berri iturri. ■



Nafarroako taldekako txapelketako hirugarren jardunaldiko partida, 1995eko urriaren 21ean. **Jesus de la Villa** (Iruñeko Oberena 'A'), 2.480 ELOkoa — **Manolo Redin** (Iruñeko Casco Viejo), 2.205 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Ae3,Ag7; 7.f3,0-0; 8.Dd2,Zc6; 9.0-0-0,d5.

Orain artekoa ohikoa izan bada ere, beltzek erdigunea apurtzera jo dute une honetan:

10.De1,e6; 11.h4. Irtenaldi honetan, eraso hau oso klasikoa da. 11.....,Dc7; 12.h5,Zd4; 13.Ad4,e5.

Ikus koadroa. Erdiko peoi beltz horiek oso babesgabeak daude. Txuriek badaukate erditik erasotzerik, beltzen pieza astunen kokapena kili-kolo dela eta.

14.Zb5,Db8; 15.Ac5.

Egokiena 'Gd8' bide da. Baina 'Db4' eta 'Ad6' zinez gaiztoak datoz.

15.....,Ae6.

Jokoa emateko da. Baina galtzea onestea ere bada.

16.g6,f-g6; 17.Af8,Df8; 18.Zc7,Ge8; 19.d5.

Erabateko hondamendiaren aurreari, beltzek amore eman zuten.



'Guaixe', urtebete lanean

1994. urteko abenduaren 20an kaleratu zuen Sakanako euskarazko hilabetekariak lehenengo zenbakia

Sakanako hilabetekaria den 'Guaixe'-k, 1994. urteko abenduaren 20an kaleratu zuen lehen alea. Urtebete igaro da, beraz, ordutik eta balantzea egiteko garaia iritsi da. 'Guaixe'-ko arduradunak —Olatz Irizar, Amaia Amilibia eta Aitziber Etxaiz kazetariak— pozik dira orain arte egindako lanarekin eta aldizkaria Sakanako herritarren artean sustraitu izana azpimarratu dute batez ere.

Edurne Elizondo / Iruñea

SAKANAKO euskarazko hilabetekaria den *Guaixe*-k lehen urteurrena bete zuen joan den asteazkenean. 1994. urteko abenduaren 20an eman zion hasiera *Guaixe*-k orain arteko ibilbideari Kazetaritzako hiru ikasleren eskutik. Olatz Irizar, Aitziber Etxaiz eta Amaia Amilibia kazetari dira dagoeneko eta orain urtebete hasitako proiektua errealitate bihurtu dute. Atzean Biarrik taldea izan dute *Guaixe* hilabetekaria argitaratu ahal izateko. Urte honetako balantzea egiterakoan ez dute zalantzarik eta «oso positibotzat» jo dute pozik. Olatz Irizar kazetariak argibide gehiago eman dizkigu: «*Guaixe*-k Sakanan izan duen harrerari dagokionez, oso pozik gaude. Hasieran beldur ginen baina herritarren artean ongi sustraitu dela ikusi dugu. Kanean ere *Guaixe*-ren hurrengo zenbakia noiz aterako den galdetzen digu jende askok eta askok. Oso garrantzitsua da guretzat, lanean jarraitu ahal izateko».

Lehenengo urtea izateko «oso kontent» • Lortutako publizitateari dagokionez ere, urteak emandakoa aztertu dute Sakanako kazetariak: «Ez dugu ez galdu, ezta irabazi ere. Lehenengo urtea beti izaten omen da gogorrena eta hortik aurrera, hoberrantzen egiten omen da beti. Guretzat, egia erran, nahiko urte ona izan da lehenengo hau eta kontent gara».

Publizitatearen bidez lortutako diruaz gain, Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernua emandako dirulaguntzei esker bizi da *Guaixe* hilabetekaria. Urdiaingo Udalaren laguntza, halaber, biziki eskertu nahi izan dute *Guaixe*-ko arduradunek, «bulegoa bertan izateaz gain, hasieratik gure alde izan baititugu Udaleko kideak, baita orain ere».

Denboran urtebete atzera eginenez gero, euskarazko komunikabideen alorrean zegoen «hutsune handia» betetzeko asmoz sortutako proiektua aurkituko genuke *Guaixe*-ren iturburu. «Unibertsitatean geundela, Euskal Herriko herri askotan halako aldizkariak zeudela konturatu ginen eta orduan bururatu zi-



Aitziber Etxaiz, Olatz Irizar eta Amaia Amilibia dira *Guaixe*-ko erredakzio taldeko kideak.

EGUNKARIA



Herriz herri hamazazpi berriemaile ditu *Guaixe*-k. Argazkian horietako batzuk.

EGUNKARIA

«Dugunari eutsi eta indartu»

OLATZ IRIZARREN esaldi batek garbi azaltzen du Sakanako hilabetekariako arduradunek etorkizunari begira duten helburua: «Egun dugunari eutsi eta ahal dugun neurrian indartu».

Horretarako, besteak beste, aldizkariaren egungo maketazioa hobetzea da *Guaixe* hilabetekariak dituen asmoetarik bat. «Oraingo, hala ere, ez dugu erabaki zehatzik hartu».

Eutsi eta indartu beharreko beste gauza edo ataletarik bat, bes-

talde, publizitatearena da, publizitatea baita, azken finean, *Guaixe* aldizkariak duen iturri nagusia, Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin batera.

Sakanako euskarazko lehen komunikabidea ezezik, Sakanan euskarazko publizitatea egin duen lehen medioa ere izan da *Guaixe*, baina oraindik, Olatz Irizarrek aitapatu duenez, hainbat zailtasun ditu alor honetan. «Iragarki txiki asko saltzen ditugu,

baina orri osoak nekez» dio *Guaixe*-ko kazetariak. Hutsune hori betetzeko asmoz, banketxeak edo lantegi handiak bezalako bezeroak erakarri nahi ditu Sakanako hilabetekariak.

Aurretik duen bidea zaila bada ere, orain arte egin duena ez da nolana hikoia izan, baina proiektu honetan murgildurik diren lagun guztiek egindako lanak eman du fruiturik. Olatz Irizarrek eman digu fruitu horien berri: «Hasiera oso zaila izan zen. Publi-

taterako txokoak eskainiz dendaz denda hasi ginenean, leku askotan erran ziguten ezetz, euskarazkoa izanik eragin gutxi izanen zuelakoan. Baina urtebete igaro ondoren, hasieran ezetz erran zigun jende askok dei egin behar izan digu, oker zegoela esanez. Horien artean badira gure asmo edo proiektuan sinesten ez duten asko eta asko, baina hala eta guztiz ere gure aldizkariaren publizitatea sartzea eraginkorra dela konturatu dira».

Olatz Irizar:

«Hasieran beldur ginen, baina urte honen buruan *Guaixe* Sakanako herritarren artean ongi sustraitua dagoela ikusi dugu»

«Euskaldun asko dago Sakanan, nahiz eta euskaraz gutxi irakurtzen den. Eta gure asmoa euskarazko komunikabideen alorrean zegoen hutsune handia betetzea izan zen. Sakanako euskarazko hilabetekariaren proiektua ildo horretatik sortu zen»

tzaigun Sakanan ere antzeko gauza egitea» azaldu digu Irizarrek.

Izan ere, Irizarren irudikoz, «euskaldun asko dago Sakanan nahiz eta euskaraz gutxi irakurri». Euskaraz irakurtzeko ohitura piztea izan da, hortaz, *Guaixe*-ko arduradunek helburutzat hartu duten ideietako bat. «Beste hainbat lekutan bezala Sakanan ere herri txikietak berriek Nafarroako egunkari haunditan agertzeko aukerarik ez dutela kontuan hartu dugu. Berri horiek guztiak gure orrialdeetan jasotzea ere, beraz, izan da gure helburu».

Herriz herri hamazazpi

berriemaile • *Guaixe* aldizkariako 28 orrialdeak hilero-hilero ateratzen dituzte Sakanako kazetariak, herriz herri banatuta dauzkaten berriemaile guztien laguntzaz. *Elkarrizketa*, *Sukaldeko txokotik*, *Bertsotan*, *Irakurleak mintzo*, *Erreportaia*, *Haurren txokoa*, *Kirolak*, *Euskararen txokoa* edo *Bitxitasunak* bezalako sailak jada Sakanako biztanle guztientzat ezagun eta lehen mailako informazio iturri bihurtu dira.

Baina sail hauen guztien artean garrantzitsuenetakoa *Sakanerria* izenekoa dela erran dezakegu, aldizkariako 28 orrialdeetatik hamar sail honek bakarrik jaten baititu hilabetez hilabete. Bertan *Guaixe*-k Ziordia eta Irurtzun bitartean dituen hamazazpi berriemaileek herri bakoitzeko kontuak isladatzen dituzte hilabetero.


Kirolen alorrean ere lan nabarmena egiten du Sakanako hilabetekariak eta lan hori eskertzeko asmoz, hain zuzen, aipamen berezia merezi izan du *Guaixe*-k orain aste batzuk Sakanako kirolari onenen sariak banatzera koan. «Guretzat oso garrantzitsua da halako saria irabazi izana» azpimarratu du Olatz Irizarrek, «jendeak gure lana irakurri eta ontzat ematen duela erran nahi baitu». X

◆ Eduardo Lakasta ◆ NUPeko irakaslea

«Ikertzeko aukera gutxi dugu hemen»

Eduardo Lakastak matematikaren didaktika irakasten du Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Irakasletzako euskarazko lerroan. Funtzioaren grafiko kartesiarrak oinarritzat hartuz, Bordeleko Unibertsitatean tesia irakurri zuen joan den urriaren 27an, baita doktoretza europarraren titulua eskuratu ere. Bere ikerketaz eta beste hainbat gairi buruz mintzatu gara berarekin.

Edume Elizondo / Iruñea



Europako labela eskuratu du Eduardo Lakastaren doktoretza tesia.

OSKAR MONTERO

EDUARDO LAKASTA matematikan doktoreak NUPeko bulegoan hartu gaitu Europako titulua jaso duen bere tesiari buruz hitz egiteko. Matematikaren didaktika da bere ikerketen oinarri eta Frantzia honen inguruan sortutako eskola du irizpide.

■ **Funtzioaren grafiko kartesiarrak matematikako bigarren hezkuntzan da zure tesiaren izenburua. Azaldu iezaguzu hitz gutxitan horren mamia.**

Funtzioaren grafiko kartesiaren gaia oinarritzat hartuz, gai honi buruz pentsatzen dena eta benetan gertatzen dena aztertu nahi izan dut. Normalean arlo anglosaxoiararen matematikaren didaktika, psikologia edo pedagogiaren laguntzaz ikertu da, baina Frantzia, orain dela 25 bat urte, eskola berezia sortu zen matematikaren didaktika ikertzeko eta haren asmoa da matematikaren hezkuntzaren arazoa matematikaren alorretik bertatik aztertzea. Nire tesia zuzendu duen Guy Brousseau da lerro hau proposatu duen ikerlarietako bat. Lerro honi jarraitu diot nik ere nire tesian. Grafiko kartesiarraren

azterketa matematikoa egin dut eta hortik aurrera, umeen artean zer gertatzen den ikertu dut.

■ **Tesia frantsesez idatzi eta irakurri duzu Bordeleko Unibertsitatean. Zergatik jo duzu hura?**

Duela bost urte hasi nintzen lanean eta orduan hemen oso aukera gutxi zegoen matematikaren didaktikari buruz tesia egiteko, ez zegoen katedradunik edo ikerlariarik hori zuzentzeko. Bestalde, aspaldi, orain hamabost bat urte Gui Brousseau ezagutu nuen kongresu batean eta orduz geroztik harremana izan dut berarekin. Azkenik, orain bost urte matematikaren didaktikaren alorreko bost irakasle Zaragozako Unibertsitatean izan ginen eta bertan Frantziako matematikaren didaktikaren lerro be-

rri horretaz mintzatu ginen. Hainbat irakasle lerro honekin ados zegoen eta nolako teoria zen jakin nahi genuen. Horrek bultzatuta, akordioa sinatu zuten Zaragozako eta Bordeleko Unibertsitateek eta bertara joateko aukera izan genuen. 1990. urtean Bordeleko Unibertsitatean Diplôme d'Etudes Approfondies eskuratu nuen, ikertzen hasteko nolabaiteko baimena lortuz.

■ **Hemen ere besteak beste Brousseauk defendatzen duen lerro hori garatzeko aukerarik badagoela uste al duzu?**

Lerro honetan interesa dugu-nok, egia erran, ez dugu gehien-goa osatzen. Hala ere, azken hiru urteotan gehiago entzuten dira bai matematikaren didaktikan bai beste zientzien didaktikan ere lerro honen printzipio teorikoak. Egungo edozein tesitan, gainera, maiz aipatzen dituzte Brousseau edo lerro honetako beste hainbat ikerlariaren izen eta lanak. Bestalde, zaila da Frantziako lerro hau ezagutu eta bertan lan egitea, komunikazio arazoa dago. Pixkanaka gero eta gehiago ezagutzen da, baina oraindik zailtasun teo-

riko eta politiko-akademiko asko dago, baita Frantzia ere.

■ **Zure tesiak, dena den, doktoretza europarraren titulua jaso du Bordelen.**

Europako Batasuneko hainbat estatutako errektoreen batzordeek proposatuta finkatu zen orain dela lau bat urte titulu europarra. Lortu ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira, hala nola Europako bi hizkuntza ofizial erabiltzea, tesia epaituko duen tribunalean Europako Batasuneko hiru herritako kideak izatea eta tesia aurkezten den herria ez den beste herri europarran gutxienez hiru hilabetez egotea. Egia erran, bitxia izan da, hemengo irakaslea izanik ere, Frantzia egin baitut ikerketa. Tesia bertan irakurri dudanez, beraz, bertatik kanpo gutxienez hiru hilabetez bizi izan naizela frogatu behar izan dut.

■ **Guy Brousseauk zuzentzen duen Ladist-en ere —Laboratoire de Didactique des Sciences et des Techniques— hartzen duzu parte. Hemen ikertzeko aukera gutxiago dago hain baina?**

s o s l a i a

1990. urtean Nafarroako Unibertsitate Publikora ailegatu aurretik, Nafarroako Irakasle Eskolan egon zen Eduardo Lakasta irakasle, 1976. urteaz geroztik hain zuzen. Egun, matematikaren didaktika irakasten die euskaraz NUPen Irakasletza ikasten ari diren gazteei.

Matematika irakaslea izan arren, fisika ikasi zuen Eduardo Lakastak Zaragozako Unibertsitatean. Berak dioenez, finean, matematikaren lengoia erabiltzen baitu fisika teorikoak.

Matematikaren didaktika ongi ezagutzen duen gaia da, irakurri berri duen tesiak frogatzen duen legez. Bere tesia zuzendu duen Guy Brousseauarekin, hain zuzen, hainbat lan egin ditu eta, egun, Brousseauk berak zuzentzen duen Ladist-en (Laboratoire de Didactique des Sciences et des Techniques) hartzen du parte.

Ladist ikerketa zentro bat da. Honen ondoan badago beste ikerketa zentro bat, alde batetik eskola arrunta —lehen hezkuntza eta haur eskola ematen dute bertan— eta bestetik ikerketarako eskola dena. Matematikaren didaktika ikertzen dugu bertan. Umeak ikusi eta euren jokaera azter dezakegu bertan, bai kamera zein mikrofonoak dituzten gela berezien bidez. Proposatutako gaiak esperimintatzeko aukera dugu horrela. Egia erran, bertan maisu, ikerlari, ikasle eta irakasle artean dagoen harremana ezin dugu hemen finkatu, ezin dugu hemen halako ikerketarik egin oraindik.

■ **Matematikari ikasleen ikuspuntutik helduz, zer irteera du egun karrera hau ikasi duenak?** Langabezia ez da egongo behintzat. Ikerketa eta irakaskuntzaz gain, egia erran, arlo askotan aplikatzen da egun matematika edo eredu matematikoa. Gero eta gehiago, adibidez, enpresa pribatu eta institutuetan ari dira lanean matematikariak. Egune-tik egunera gehiago lantzen da matematika.

«Nahiz eta pixkanaka gehiago ezagutu, gutxiengoaren lerroa da matematikaren didaktikaren Frantziako eskola»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

